

Bera eta ni supermerkatuan

**Itzea Urkizu
Arsuaga**

Gaur, bazekien egunari behar baino helburu gehiago jarriak zizkiola. Asmatu du. Egitekoen zerrendan “tik” guztiak ez marrazteak kezken motxilan uzten duen pisua hartu, lanetik irten, eta supermerkatuera doa, afaltzeko zerbait eroatera.

Buruan bueltaka darabil, honezkero idatzita izan nahiko lukeen zutabea: «Gaia bai, gaia hori izango da». Baina, aste honek ez dio sormenik oparitu nahi. Pentsamendu horien erritmora hartu ditu otordurako jakiak, eta badoa kutxara. Zinta-garraiatazailan, poltsa-bai-ala-bai-azkar-bete-beharreko une es-tresagarrian eskuak libre izateko, bufanda janzten hastea erabaki du.

Aspaldiko partez hotz egiten du gaur eta, bai, horrek maila berberean pizten dizkio malenkonia eta poza; maite du udazken hondarra, neguz janzten denean. Eguzkiari irtetea bezala, jendeari ia hitz egitea ahazten zaionean, eta supermerkatuetako azken ilarek egun osoko nekea marrazten dutenean.

Bufandarekin amaitzen ari dela, begi ertzetik sentitu du atzekoa, behatzaile. Gizon heldu bat da, kristalezko potoa eskuetan. Eta pitonisarena egin du bere buruarekin: «Pasatzen uztea nahiko du». Gizonak hartu du hitza, gaztelaraz eta ozen, aurretik egindako hausnarketa idiliko horiek guztiak zapuztuz: «E, aizu, oraindik ez du elurrik ari, e! Oraindik ez daukazu hainbeste tapatu beharrik!». Eta berak,

berak pentsatu du ez duela astirik, entzun berri duenari soseguzko filtro bat pasatu, eta erantzunik egokiena formulatzeko. Ze, dakien bakarra da, erantzun egingo diola: «Barkatu, baina, nik nahi adina tapatzeko eskubidea izango dut ba. Oker ez banago, zu ere txapelarekin zaudede, gainera». Iritzi-truke antzuarri hiltzen utzi beharrean, gizonak azken zehaztapen bat egin nahi izan dio; azken hitza.

Gaur, bazekien Euskaraldiari buruzko zutabe bat josi nahi zuela. Eta, neurri batean, asmatu du. Gaztelera hutsean bada ere, askok mendeak baitaramatzate beti “ahobizi” izaten; nahi dutena nahi dutenari esan, eta hura “belarriprest” totala izango dela pentsatzen. Baina, e, aizu, gaur, aspaldiko partez, hotz egiten du. •

«Tested in combat»

Koldo Sagasti

Atzo, mundu kapitalistan Black Friday eguna beste hizpiderik ez genuenean, benetako ostiral beltz baten atarian zeuden Gazako zerrendan. Izan ere, “Itzulerako Martxa” izeneko ekimena abian jarri zenetik, ostiralero, Israelek okupatutako eremuekiko mugetara atera dira itsasertzeko kontzentrazio esparruko biztanleak protestan. Eta astero, erregimen sionistako frankotiratzaileak modu zitalean oldartu zaizkie manifestariei, eta dagoeneko armarik gabeko berrehun herritarretik gora erail dituzte eta 20.000 ingururi bizi ar-teko mutilazioak eragin dizkiete.

Testuinguru horretan, azaroaren 20an Espainiako Gobernuak iragarri zuen Defentsa Ministerioak bi “RPAS sistema” erosiko dizkiola Israelgo armagintza enpresa bati; eta halaxe iragarri zuen, hauts gehiegi harrotu gabe, bere Buletin Ofizialean. Urrunetik gidatutako tramankulu hegalarri horiek Israelgo Armadak Gazako protestarien kontra baliatzen dituenak bezalakoak dira. Traste horien bidez zerrutik gaseztatu eta jazartzen dituzte manifestariak. Health Work Committees osasun arloko erakunde palestinarrak salatu duenez, Israel Gazako herritar zibilekin esperimentatzen ari da; orain arte sekula

erabili gabeko munizioa jaurtitzen dute zaurituei ondorio sendaezinak eragiteko, gas itogarri ezezagunak erabiltzen dituzte herritar armagabeen kontra... Eta horrek, dudarik gabe, eraginkortasun bermea ematen die Israelek merkaturatzen dituen gerra-produktuei. Horrexegatik areagotu egiten da, oldarraldi militarren testuinguruan, Israelek “*tested in combat*” (guduan probatua) etiketarekin saltzen dituen produktuen balioa. Ardorik onena eroatera Arabako Errioxara joango ginatekeen bezala, heriotza-tresnaz hornitzera heriotzaz gehien dakienarengana jotzen dugulako, nonbait. •